

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuaren foru agindua, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Bizkaiko Foru Aldundiaren foru dekretuak prestatzeko prozedurari.

Proiektua: Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua. Honen bidez, oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira dibertsitatearen kudeaketaren arloan proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeek 2019. urtean diru-laguntzak emateko.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiak, iaz egin zuen bezala, 2019. urterako helburuen artean jaso du Bizkaiko herritarren aniztasuna eta eskubideen benetako berdintasuna zaintzea edozein direlarik ere haien jatorria, etnia, sexu-joera, erlijioa, sexua, sexu- edo genero-identitatea, familia-eredua edo gaitasun funtzionala.

Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiak elkarbizitza harmonikoa sustatzeko tresna batzuk jarri ditu martxan. Elkarbizitza horren oinarriak, hain zuzen ere, pertsonen arteko errespetua, herritarrek eskubideez gozatzea, pertsona horiek guztiek beren betebeharrak betetzea eta gizartean zein politikan aukera berdinekin parte hartzeko aukera izatea.

Tresna horien artean, garrantzitsuenetako bat da dibertsitatearen kudeaketaren arloan jarduerak egiteko urtero egiten den diru-laguntzen deialdia.

Lan horretan, 2008. urtean hasi zen, eta ikusi da tresna estrategikoa dela elkartasare bat sendatzeko, non pertsona eta

Orden Foral de la diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, por la que se incoa el procedimiento de elaboración de decretos forales de la Diputación Foral de Bizkaia.

Proyecto: Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regulan las bases y la convocatoria de las subvenciones, durante el año 2019, a entidades sin ánimo de lucro que aborden proyectos para la realización de actividades en el ámbito de la gestión de la diversidad.

La Dirección General de Igualdad, Cooperación y Diversidad del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, tal y como lo hizo el pasado año, ha incluido entre sus objetivos para el año 2019 velar por la diversidad y a favor de la igualdad efectiva en el acceso de ciudadanos y ciudadanas de Bizkaia a sus derechos, independientemente de su origen, etnia, orientación sexual, religión, sexo, identidad sexual o de género, modelo familiar o capacidad funcional.

Con este fin, la Dirección General de Igualdad, Cooperación y Diversidad ha puesto en marcha diversos instrumentos dirigidos a la promoción de una convivencia armónica, basada en el respeto entre las personas, el disfrute de derechos y el cumplimiento de deberes de todas y cada una de ellas, y su participación social y política en igualdad de condiciones.

Entre estos instrumentos, uno de los más importantes es la convocatoria anual de subvenciones para la realización de actividades en el ámbito de la gestión de la diversidad.

Este ejercicio de trabajo se inició en 2008 y se ha revelado como un instrumento estratégico para el fortalecimiento de un



taldeek parte hatzeko aukera duten eta Bizkaiko gizartearen barruan kulturen arteko elkarrekintzarako guneak sustatzen diren.

Era horretan, Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitatearako Zuzendaritza Nagusiak lagundu du bere erronka bati aurre egiten: gizarte dibertsoago bat, interkulturalago bat eta pluralago bat lortzea pertsonen dimentsio guztietan. Gai honek eskatzen du pertsona eta talde guztien bizikidetzeta eta elkarrizketa susta daitezela, betiere pertsona eta taldeen identitatearekiko errespeturik handiena dagoela eta edozein direla ere haien jatorria, etnia, sexu-joera, erlijioa, sexua, sexu- edo genero-identitatea, familia-eredua edo gaitasun funtzionala.

Xedapen hau salbuetsita dago aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea eta entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea egitetik (izapideok BFAn xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan ezarrita daude). Izan ere, foru dekretu horretako bigarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian ezarritako salbuespenen barruan dago xedapen hau, haren edukia ez baitu funtsean aldatzen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 19ko 25/2018 Foru Dekretua, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak dibertsitatearen kudeaketaren arloan jarduerak egiteko ematen dituen diru-laguntzak arautzeko oinarriak eta deialdia onesten dituen, ezta aurrekoak ere.

Era berean, 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 4.2 artikulua arabera, badago arrazoirik dekretu honen izapidea aurreratzeko: beharrezkoa da diru-laguntzen deialdiaren izapideak bizkortzea, horrela ez atzeratzeko entitateek aurkeztutako proiektuen exekuzioa, eta badago kreditu egoki nahikoa dagokion aurrekontu-aplikazioan.

tejido asociativo que propicia la incorporación de personas y colectivos a la participación pública, y para la promoción de espacios de interacción cultural en el seno de la sociedad de Bizkaia.

La Dirección General de Igualdad, Cooperación y Diversidad ha contribuido, de este modo, a enfrentarse a los retos de una sociedad cada vez más diversa, más intercultural, más plural en todas las dimensiones de las personas. Esta cuestión exige promover la convivencia y el diálogo de todas las personas y colectivos desde el máximo respeto a su identidad, independientemente de su origen, etnia, orientación sexual, religión, sexo, identidad sexual o de género, modelo familiar o capacidad funcional.

La presente disposición queda exenta de los trámites de consulta pública previa y audiencia e información pública previstos en el Decreto Foral 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general de la DFB, ya que entra dentro de las exenciones contempladas en la disposición adicional segunda (apartado 1) al tratarse de una disposición cuyo contenido no modifica substancialmente el contenido del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 25/2018, de 19 de marzo, por el que se regulan las bases y la convocatoria de las subvenciones, durante el año 2018, para la realización de actividades en el ámbito de la gestión de la diversidad, ni el de años anteriores.

Asimismo, según el artículo 4.2 del DF 2/2017, de 17 de enero, la tramitación anticipada de este decreto viene motivada por la necesidad de agilizar la tramitación de la convocatoria de subvención con el fin de no retrasar la ejecución de los proyectos presentados por la entidades, existiendo crédito adecuado y suficiente en la aplicación presupuestaria pertinente.



Azaldutako guztia dela bide, proposamen hau egiten da:

Ebazpen-proposamena

Lehenengoa. Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua prestatzeko prozedurari hasiera ematea, zeinaren bidez oinarri arautzaileak eta deialdia onesten baitira dibertsitatearen kudeaketaren arloan proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeei 2019. urtean diru-laguntzak emateko; hala egiten da Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen BFAren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuko 18. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Bigarrena. Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua (haren bidez, oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira dibertsitatearen kudeaketaren arloan proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeei 2019. urtean diru-laguntzak emateko) salbuetsita dago urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan ezarritako aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea eta entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea egitetik.

Por todo lo expuesto, se realiza la siguiente

Propuesta de Resolución

Primero. Incoar el procedimiento de elaboración del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regulan las bases y la convocatoria de las subvenciones, durante el año 2019, a entidades sin ánimo de lucro que aborden proyectos para la realización de actividades en el ámbito de la gestión de la diversidad, a los efectos previstos en el artículo 18 del Decreto Foral 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Segundo. El Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regulan las bases y la convocatoria de las subvenciones, durante el año 2019, a entidades sin ánimo de lucro que aborden proyectos para la realización de actividades en el ámbito de la gestión de la diversidad queda exento de los trámites de consulta pública previa y audiencia e información pública previstos en el Decreto Foral 2/2017 de 17 de enero.

Nork sinatuta / Firmado por: CRISTINA SARDUY GAINZA - Data / Fecha: 2018-11-20
GENERO POLITIKETARAKO ETA DIBERTSITATERAKO IDAZKARI TEKNIKOA
SECRETARIO/A TÉCNICO/A DE POLÍTICAS DE GÉNERO Y DIVERSIDAD

Nork sinatuta / Firmado por: MARÍA GUIJARRO CEBALLOS - Data / Fecha: 2018-11-20
BERDINTASUNERAKO, LANKIDETZARAKO ETA DIBERTSITATERAKO ZUZ. NAG. REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE IGUALDAD, COOPERACIÓN Y DIVERSIDAD